

ERREBOTE PLAZAREN ERABERRITZEAREN AURREAN VILLABONATAR TALDE HONEN BALORAZIOA

1.-AZALPENA

Billabonatarrontzat Errebote plaza gure herriaren bihotza eta motorra da. Bere erabileran edo kontzeptuan eragin dezakeen edozein eraberritze estrategikotzat jotzen dugu eta ondorioz parte hartzea bultzatuz herritarrei iritzia eskatzeko modukoa.

2.-GURE LANAREN BALORAZIOA

Irailaren amaieran jakin genuen plazaren eraberritzeari ekiteko asmoa ziola Udalak eta eraberritzea sakona izango zela, gastua ere ez baitzen nolana hikoia. Bi aste lehenagotik alkate dekretu bidez proiektua onartua zegoen jada eta herritarrek oraindik ez genuen inolako berririk. Urriaren erdialdera oraindik Udalak eraberritze proiektuaren inguruko informazioirik ez zuela eskaintzen ikusirik, hainbat bizilagunek bilkura deialdi bat zabaldu genuen eta bertan sinadura bilketa batekin hastea erabaki zen:

- a) Batetik, egiteko asmoa zegoenaren inguruan informazioa jasotzeko asmoz, batik bat plazaren guneari emateko asmoa zegoen erabilpenei zegokionean; izan ere harrituak geunden eta proiektuak bere barnean futbito kantxarrik aurreikusten ez zuelako.
- b) Eta bestalde, eraberritze horretan nolabaiteko parte hartzea lortzeko helburuz, bai eragile antolatuen aldetik eta baita bizilagun partikular gisara.

600 sinadura baino gehiago izan dira bildutakoak eta udaletxean sarbidea eman zaienak, honako ondorio eta lorpenak eskuratuz:

- a) Azkenean, azaroaren hasieran udal gobernuak proiektuari buruzko informazioa bideratzen du amavi berezi baten bidez eta udalaren web orrian proiektua bera zintzilikatuz.
- b) Informazio honetan, guretzat oso garrantzitsua den gauza bat aipatzen da, eraberritzea eta gero ere, plazak aurretik zituen erabilpen guztiak mantenduko direla.
- c) Udalaren Parte Hartzea batzordea deitzen da urriaren 14rako, bertara herriko eragile guztiak deitzen ez badira ere.
- d) Bilkura honetan, udala email helbide bat irekitzera konprometitzen da, proiektuari egon daitezkeen ekarpenak astebeteko epean horrantz bideratzeko aukera egon dadin (idatzi hau egiteko unean oraindik egin gabe jarraitzen du).

Hau ikusirik, burutu dugun lanarekin gustura gaudela esan behar dugu, hasieran genituen helburuak neurri handi batean bete baititugu. Ezin ezkutatu ordea, zapore gazi-gozorik eragin digunik egon dela afera guzti honetan, batetik parte hartzea lehenago eta sakonago burutu behar zelako eta bestetik, ekarpenei atea irekiko ziela esan eta hurrengo egunean obra adjudikatzeko kontratazio mahaiaren bigarren bileraren deialdia zabaldu duelako udal gobernuak, parte hartzearen aldeko joera handiegirik ez duela erakutsiz (berdina egin zuen udal gobernuak sinadurak aurkeztu eta hurrengo egunean, kasu hartan kontratazio mahaiaren lehen bilkura deituz).

3.-HAINBAT GALDEREI ERANTZUNA

A.-PROIEKTUA ZER IRUDITZEN ZAIGUN

Bizilagunen artean era desberdinetako zalantzak entzuten dira... Argi apaingarrietan gehiegi gastatuko dela, Obaba tabernako pareta ez litzatekeela bota beharko, proiektuak futbitoan

aritzeko bitartekoak ez dituela kontenplazten... Gu ez ginen antolatu iritziak sortzeko, zeudenak Udalaren aldetik entzunak izan zitezten lortzeko baizik. Argi dago proiektuak Villabonan jokatzeko duen papera nabarmentzen duela, eta hau aspektu positiboa litzateke, baina era berean esan behar da ez dela adostutako proiektu bat gainontzeko erabilpenei dagokionean. Alkate dekretu bidez onartua izan zen, Behar Zana elkartearen ikusmolde garrantzitsua kontuan hartuz, baina askoz gehiago dira proiektua onartua izan aurretik informatuak, eta are gutxiago kontsultatuak, izan ez diren erabiltzaileak.

B.-ZER ALDATUKO GENUKE? ZER EZ DUGU ONDO IKUSTEN?

Gure kasuan proiektua erabakitzeko prozesua ez zaigu batere gustatu, eta bereziki desatsegina gertatu zitzaigun Parte Hartzea batzordea, parte hartzeari ateak zabaltzeko baino beste asmo batekin egindakoa izateaz gain, alkatetzaren aldetik mespretxuzko komentarioen jomuga izan baikiñen. Agian izango da udal bilkura hauetan erabiltzen diren hitz iraingarrietara ez gaudela ohituak.

Proiektu estrategiko hau hasieratik informazio zehatzarekin eta ekarpenak egiteko aukerekin aurkeztua izatea gustatuko litzaioguke. Agian azken produktua ez litzateke onartutakoaren oso ezberdina izango, baina lehen-lehen unetik herritarren parte hartzearekin eta adostasunarekin kontatuko zukeen.

C.-PROIEKTU HONEK PLAZAREN BEREZITASUNA ERRESPETATZEN DU?

Errespetatu bakarrik ez, proiektuari dagokionez garrantzitsuena errebote kantxaren berreraikitzea izan da. Beranduago Alkatetzatik plazari bizitza ematen dioten erabilpen guztiak errespetatuko direla ziurtatu da, hauxe proiektuan antzematen ez bazen ere.

Errespetatu ez dena zera izan da, herritarrek plazaren eraberritzean parte hartzeko zuten nahia. Ekarpenak egiteko aukera izan behar zuten herriko bizitzaren motorra den gune hau definitzeko garaian, plaza baita aktibitate ugariaren erdigunea eta jatorri ezberdinetako bizilagunen aisialdiaren kokalekua.

4.-JARRERA ETA BORONDATE KONTUA DA

Zergatik diogu hau? Beste bat izan balitz gure ekimenak zentzurik ez lukeelako eta egongo ez zelako.

Garaiz informatu ez delako eta parte hartzea eragotzi delako, proiektua alkate dekretuz onartuz.

Eta parte hartzea aldarrikatze hutsagatik, irainduak izan garelako. Tira, udal gobernuak kideak animatzen ditugu herritarren kezkek hain modu txarrean ez hartzera, inor demonizatu gabe elkarlana sustatzeak beti ekarriko baitio onura herriari.